

# ikastola



GAZTE EGONALDIAK IKASTURTE OSOAN ESPEJON

BASABÜRÜKO IKASTOLAK ERAIKIN  
BERRIA ALOZEN

KONTSEILUA HAMAR URTEZ LANEAN

"IRRISTALARI, MUNDUAN  
IBILTARI" CD-ROMa

ESKOLARTEKO FINALISTAK,  
FIRIN-FARAN



TXIOKA, HEGAN HASI BAINO LEHEN





Erreferentziako  
txartela:

Finantza-txartelen  
erraztasun  
guztiekin eta  
gainera...

**Bidaia-  
asistentziako  
doako aseguru**

abantailak era  
guztietako 2.000  
establezimendutan.

Deskontuak  
mundu osoan  
izateko giltza.

Kontsultatu  
**BBK26 gida,**  
**www.bbk.es**

orrian



- 3 TXIOKA, ALTSASUKO HABIA
- 7 BATZARRAK JAKIN-MINA PIZTU DU GURASOEN ARTEAN
- 8 GAZTE EGONALDIK IKASTURTE OSOAN ESPEJON
- 10 25 URTE BERTSOLARITZA LANTZEN
- 12 "IRRISTALARI, MUNDUAN IBILTARI" CD-ROMA. JOXIN AZKURI ELKARRIZKETA
- 14 BASABÜRÜKO IKASTOLAK ERAIKIN BERRIA ALOZEN
- 16 KONTSEILUA HAMAR URTEZ LANEAN
- 18 ESKOLARTEKO FINALISTAK FIRIN-FARAN
- 20 DURANGO, URTEKO LANAREN ERAKUSLEIHO

EDITATZAILEA:  
IKASTOLEN KONFEDERAZIOA  
Zamudioko Teknologia  
Elkartegia, 208 B-1  
48170 ZAMUDIO  
Tel.: 606 33 41 45

KOORDINATZAILEA:  
Zurire Mendizabal  
aldizkaria@ehik.ikastola.net

ERREDAKZIOA:  
Joxean Agirre eta  
Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILEA:  
Imanol Artola

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Txema Garzia Urbina

INPRIMATZAILA:  
GERTU Inprimategia.  
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

ISBN:  
Ikastolen Konfederazioa,  
84/933872/6/6

AZAROA 2008

IKASTOLA ALDIZKARIA  www.ikastola.net

# TXIOKA ALTSASUKO HABIA

ESTHER GARAIALDE eta JONE ARETA,  
zuzendariak  
"Eraikin zoragarriak txunditu ditu bazterrak"



## Etxekoak

eta kanpokoak liluratu ditu Altsasuko ikastolak zabaldu berri duen HHko TXIOKA eraikin berriak. Dagoeneko herri osoa pasatu omen da, asko zinez hunkituta, barruan diren patio, frontoi zein jolaslekuak, gela ireki eta koloretsuak, sehaska bitxiak, Dizebi graffitigileak sarreran egin duen horma-irudia, Kukuxumusuko txoriak, iragarpenak gurasoei adierazteko pantaila elektronikoa, Italiako Regio Emiliatik ekarritako jostailu erraldoiak edo Ikeako erredizak ikusteko.



**Z**ero-hiru urteko 48 ume hasi dira Altsasuko Otadia auzoan inauguratu berri duten HHko eraikin koloretsuaren lehen solairuan “TXIOKA”. Haiek zaintzen Iñigo Aritzako ikasle ohiak diren irakasleak ikus daitezke. Gela zabal eta koloretsu horiek dira ikastolako zuzendari **Esther Garaialdek** bisitarietara erakusten dizkien lehenak. *“Ordu asko sartu ditugun diseinuarekin pentsatzen? Astia ere izan dugu, eraikin hau lortzeko bederatzita urte behar izan baitugu”*, erantzun zizun.

1999an hasi ziren proiektua lantzen. Ikastolaren ondoan egin beharrean, herri erdian egitea erabaki zuten. Udaletik 2.200 metro koadroko lur-saila lortu zuten 50 urterako, urteko mila bat euroko alokairua ordainduz. Kokapena ezin hobea da: orain etxe berriz betetzen ari den Otadia auzoa. *“2005eko Nafarroa Oinezekin osatu genuen gutxi gora-behera aurrekontuaren erdia; hiru banketxetan eskatutako mailegua ere hor da; eta beste zati bat, gurasoen diru kopuru bat aurreratuz osatu ahal izango duguna”*, jarraitu zuen. Hiru arkitekto eraman dute lanen ardura.

Ikastolako ama bat dago tartean, Pilar Bakaikoa, Udaletxeko arkitekto ohia da bigarrena, Jabier Flores, eta Lander Aranburu hirugarrena.

*“Espazio zabalak eta handiak lortzen saiatu gara bi solairutan. Legeak agintzen duen bezala, 0-3 eta 3-6 berezi egin ditugu, eta umeen adinari dagozkion koloreak eta diseinua erabiltzen abalegindu gara. Nafarroan arlo honetan lan egiten duen pertsona bat etorri zen orain egun batzuk eta lurralde osoan ez duela bain eraikuntza politik ikusi ez zizun”*, erantsi zuen **Jone Aretak**, Txiokekako zuzendariak.

#### BI LERROKO IKASTETXEA

Iñigo Aritza ikastolak kudeatzen du 3-6 zikloa, eta bertako guraso elkarte arduratuko da 0-3 zikloaz.

*“Bigarren lerroa lortzen saiatu da Iñigo Aritza urte askoan. Guk izan ditugu 35 umeko matrikulak, baina Hezkuntza Departamenduak horrela birkalifikatuta lerro batekoak garenez, 25 ikasle bakarrik matrikulatzeko baimena dugu. Eraikuntza hau egiteko orduan oso garbi genuen bi lerrokoa izan behar zuela. Hala egin dugu.”*



TXIOKAN LAN EGITEN DUTEN HEZITZAILEAK IKASLE OIHAK DIRA. IZAR RAZKIN, MAITE LARREA, LEIRE ALVIZ, EIDER GARDE ETA ARITZ LEUZ.

**“ESPASIO ZABALAK ETA HANDIAK LORTZEN SAIAU GARA BI SOLAIRUTAN. LEGEAK AGINTZEN DUEN BEZALA, 0-3 ETA 3-6 BEREZI EGIN DITUGU, ETA UMEEN ADINARI DAGOZKION KOLOREAK ETA DISEINUA ERABILTZEN AHALEGINDU GARA.”**

*Gela batzuk soberan ditugu orain, baina aurrera begira beteko ditugu. 3-6 ziklorako bi lerroko ikastetxea izatea lortu dugu, eta bidenabar ikastola osoa bi lerrokoa bihurtzeko atea zabaldu dugu”, esan zuen Estherrek. 0-3 zikloan 48 haur dituzte TxioKAN. “73 haur izateko baimena dugu 0-3n, eta beste 150 haur sartzeko baimena 3-6 zikloan. Horrek etortzen zaizkigun matrikula guztiak onartzeko aukera ematen digu”, erantsi zuen Jonek.*

**FAMILIEN MAILEGUAREKIN**

Eraikinaren aurrekontu erdia Nafarroa Oinez en diruarekin osatu zen gutxi gorabehera. Eta beste erdia osatzeko formula berri bat erabili dute: familia bakoitzak

hileko xx euro jartzen ditu (kuota gehi bost euro) eta ikastolatik doazenean soberakin hori itzuli egingo zaie. *“Familien mailegu txiki horrek bankuen maileguari erantzuteko bidea ematen digu”*, jarraitu zuen Estherrek. Nafarroako Gobernuak ez du sosik eman.

Jone Areta Lakuntzako da, Zangotzako ikastolan zuzendari izan zen eta joan den ikasturtean KEIren aholkularitzan egin zuen lan. Aspaldidanik ezagutzen dute elkar eta ikastolaren eskaintza onartu egin zuen. *“Gehien gustatzen zaidan zikloa 0-3koa da, eta guztiz interesgarria iruditu zitzaidan proiektu berri bat ezerezetik sortu eta neure kutsua ematea”*, esan zuen. **ikaSr Ola**



**TXIOKA, UN NIDO A MEDIDA DE LOS MÁS PEQUEÑOS**

El nuevo edificio de Educación Infantil, que la ikastola Iñigo Aritza acaba de inaugurar en el barrio Otadia de Altsasua, ha suscitado la admiración de propios y extraños por su factura y diseño: funcional e innovador. Aproximadamente la

mitad del presupuesto de la obra proviene del Nafarroa Oinez del 2005 y la otra mitad está siendo sufragada por un sistema de préstamos por familia, además del bancario. El Gobierno navarro no ha concedido ayuda alguna.

**TXIOKA, UN NID SUR MESURE POUR LES PLUS PETITS**

L'inauguration du nouveau bâtiment de la maternelle de l'ikastola Iñigo Aritza dans le quartier Otadia d'Altsasua a suscité l'admiration de tous quant à sa conception: il est fonctionnel et novateur. Près de la moitié du projet a été

financée avec les bénéfices du Nafarroa Oinez de 2005, l'autre moitié a été supportée grâce à un système de prêt par les familles, en plus du prêt bancaire. Le Gouvernement navarrais n'a octroyé aucune aide.

# Begiratu zientziari beste era batera

gizarte ekintza

hezkuntza



*Kutxak, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, Zientziaren KutxaGunea.*

*Ingurunean duguna hainbat sistema elkarreragileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu. Zatoz eta begira eglozu munduari beste begirada batez.*

- 170 esperimentu interaktibo.
- 10 erakusketa finko (gaikakoak).
- Planetarium digitala eta Planetarium Txikia (umeentzako).
- Elektrizitate-tailerra.
- Denboraldi baterako erakusketak.
- Ikastetxeetarako hezkuntza-programak eta material didaktikoa.
- Animazio-ekintzak eta adin guztietako jendearentzako zuzeneko ikuskizunak.
- Aparkalekua, dahanik. Erraz iristen da Museora.




ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren  
kutxaGunera**

**Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA**

Museoari buruzko informazioa osatzeko, bisita ezazu [kutxasocial.net](http://kutxasocial.net) edo deitu kutxaren Gizarte Ekintzaren informazio-bulegora: **943 00 12 17**.



# BATZARRAK JAKIN-MINA PIZTU DU GURASOEN ARTEAN



## Zortzi aurkezpen egin dira urrian

Hendaiako Varietés aretoan egin zen ikasturtearen irekiera ofizialarekin, jarri zen abian ekainera bitartean luzatuko den VI. Batzarreko dinamika. Koldo Tellituk, EHIKaren lehendakariak, eta J.Iñaki Etxezarretak, zuzendariak, zortzi aurkezpen egin dituzte geroztik, batzar horretan eztabaidatuko den "Ikastolak orain eta gero" txostenean jaso diren azken aldaketen berri emateko. Adierazi dutenez, 250 lagunek hartu dute parte aurkezpen horietan.

**“Aurkezpen hauen helburua bikoitza izan da** —esan zigun Koldo Tellituk—, txostenaren edukia ikastola guztietako ordezkariari agertu nahi izan diegu, baina bertatik bertara, gertuko giroa sortuz, eta bidenabar giroa berotzen saiatu gara, txostena prestatu duen plenarioak burutu duen hausnarketa sozializatzen eta gogoeta bultzatzen”.

Koldo Tellituk eta J.Iñaki Etxezarretak behin eta berriz errepikatu dutenez, “IKASTOLAK ORAIN ETA GERO” adostasun handiko txostena da. “Ibilbide luze eta korapilotsua izan badugu ere, azkenean bat etorri gara lurralde guztietako erakundeen

ordezkariak aurkeztu beharreko testuan; eta aurrera begira, egin beharreko bidean eta erakunderen batek, tokian tokiko lehenasunen edo ezaugarrien arabera, eska zitzakeen berezitasunak ere adosteko modua aurkitu dugu”, jarraitu zuen Koldo Tellituk.

“IKASTOLAK ORAIN ETA GERO” txostenean egin diren aldaketa nagusiak, antolaketa kolektiboaren atalari dagozkionak izan dira. Definizioak zehatzagoak dira orain, ardurak eta eskuduntzak argiago identifikatu dira; eta atal berri batean ekarpen ekonomikoak, langileen egoera, organigrama funtzionala, bateraezintasunen araudia eta erabakiak hartzeko jardunbide edo prozesua zehatu dira.

Aurkezpenetan aldaketa horien berri emateaz gainera, balorazioak eta hobekuntza proposamenak nola egin behar diren agertu zaie ikastoletako ordezkariari; izan ere, fase horretan baitago eztabaida prozesua, balorazio eta hobekuntza proposamenen fasean, alegia. Azken txostena, batzarraren bigarren saioan bozkatuko dena, ekarpen horietan oinarrituko da.

“Epeak zorrotz zaintzen saiatuko gara: **azaroaren 21erako** bilduko dira balorazioak. **Abenduaren 10erako** idatziko da behin betiko testua, eta **urtarrilaren 24ean** egingo den VI. Batzarren bigarren saioan bozkatuko da”, esan zuen Koldo Tellituk. •

IKASTOLEN ETXEAN EGINDAKO ARGAZKIAN. DONOSTIA ETA URROLA ALDEKO IKASTOLETAKO ORDEZKARIAK AGERTZEN DIRA. BEHEAN, ARANTZA MANTEROLA, GIEKO LEHENDAKARIA.

Aurreko zenbakian erreferentzia txikia egin genuen arren, beste guztien tamainan ez genuenez adierazi, hona hemen azpimarratutakoak:

**MAHOU** Ikastolen jaiak 2008ko laguntzailea. Eskaini duen zerbitzuagatik. Eman duen diru laguntzagatik. Adierazi duen elkartasunagatik: Eskerrik asko!



araba:

**GAZTE EGONALDIAK**  
Ikasturtean 08-09  
**ESPEJOKO aterpetxean**

**IZEN EMATEA:**  
Telefono helburu: +34 945 55 55 55  
Helbide elektronikoa: [arabak@arabak.espejokoa.net](mailto:arabak@arabak.espejokoa.net)

**ASMOA:**  
Ezkerre kulturari eta zuzenbideari eragotzi eta guretzat denera egiten da Gazte Egonaldia. Araba inguru, iragarri baina ez denera eritak denera baxa.  
Bestela, ezkerre kulturari eragotzi. Baxa eritak denera guretzat denera egiten da. Ezkerre kulturari eragotzi. Baxa eritak denera guretzat denera egiten da.

**ARABAKO GIROA**  
Arabak giroa da Arabak giroa. Arabak giroa da Arabak giroa. Arabak giroa da Arabak giroa. Arabak giroa da Arabak giroa.

**GAZTE EGONALDIAK**  
Arabak giroa da Arabak giroa. Arabak giroa da Arabak giroa. Arabak giroa da Arabak giroa. Arabak giroa da Arabak giroa.


# GAZTE EGONALDIAK IKASTURTE OSOAN ESPEJON

Astebetez film bat egiten edo historian barrena bidaiari

Gazte Egonaldia antolatu ditu Espejok Ikastolen Elkarteak bi udatan jarraian. Esperientzia horretan oinarrituta, ikasturte osora zabalduko dute eskaintza. **Bertara doan taldeak bi aukera izango ditu:** ikus entzunezkoak egiten ikasi, edo Gesaltzako gatzagak, Iruña Veleia eta gisako bazterrak ezagutzuz historia barrena bidaiatzea. **Hori dena, helburu jakin batekin: gazteen euskararekiko jarreraren eragin erreferente positiboak ematea.**







Ondarea ezagutzeaz gainera, egonaldietan sendabelarren tailer bat ere egiten dute, ukenduak egiten ikasteko.

Informazio gehiago 945 233 355 telefonoan.



**N**agore Amondarainek, Gazte Egonaldietako arduradunak, ideiak oso argi ditu. *“Betiko mezu sinpleak erabiliz, askotan kontrako efektuak lortzen ditugu. Gure helburua gazteei erreferente positiboak ematea izan behar du. Gustatzen zaizkien edukia landuz eta jarduerak erabiliz, euskararekiko duten jarrera hobetzea. Hitz batean esanda, aisialdia modu hezitzaile batean erabili nahi dugu. Badakigu astebetean ezin dela miraririk egin, baina afizio batzuk partekatu badituzte eta ondoren blogaren bidez harremanetan euskaraz jarraitzen badute, hori gehiago. Bi udatako egonalditakoek kedadak egin dituzte; Gasteizko festetan edo*

lortu dituzte: 60 euro hiru eguneko egonaldirako, eta 90 euro bost egunekorako. Berrogeita bost oheko muga dute aterpetxean.

**BI AUKERA**

Espejora doan taldeak eduki bat edo bestea aukeratu behar du: ikus entzunezkoa edo ondare historikoa. *“Talde batek ikus entzunezkoak egitea erabakitzen badu, laburmetrai bat grabatuko du hasieratik amaierara. Bakoitzaren gogoaren arabera banatzen dira ardurak. Batzuk zuzendari izango dira, besteek gidoia egingo dute eta besteek atrezzoak prestatuko dute. Editatu ere eurek egiten dute, eta lanak blogean eskjegiko dituzte. Blog hori*



*izango da halaber egonaldien inguruko informazioa biltzeko gunea ere. Blog bat nola sortzen eta elikatzen den ere erakutsiko diegu. Udako egonaldietan Hala Bide irradian irratsaio bat grabatu genuen. Orain ezin dugu hori egin, baina estudio txiki bat muntatuko dugu, podscastak egiten erakutsiko diegu eta interneten sartzen. Irratia egiteko modu berri bat da hau”,* esan zuen Nagorek.

esan zuen Nagorek. Gesaltzako gatzagara egingo dute irteera bat, gatzaren prozesua ezagutzeko. Espejo herria Gaubeako udalerrian kokatzen da. Aitzinako aztarnak daude bertan. Corroko eta Pinedoko haiztulo artifizialak, Santa Olallako nekropolia, Lastrako herrixka gotortua eta beste hainbat lekuko daude, eta Erdi Aroko hainbat gaztelu eta jauregi ere bai. Ondarea ezagutzeaz gainera, egonaldietan sendabelarren tailer bat ere egiten dute, ukenduak egiten ikasteko.

Informazio gehiago: 945 233 355 telefonoan. •

DBH eta Batxilergoko gazteekin egingo dute lan bereziki Espejon, baina eskaintza martxan berandu samar jarri dutenez, LH3. eta 4.ra zabaldu dute, txanda gehiago betetzeko. Dagoeneko udaberriko asteak baterik dituzte. Prezio oso onak

**ESTANCIAS PARA GRUPOS DE ALUMNOS EN ESPEJO**

Partiendo de la experiencia de los dos últimos veranos, la Confederación de Ikastolas ha organizado estancias de una semana para grupos de alumnos a lo largo de todo el curso con el fin de asociar la práctica del euskara con actividades de máximo interés. Los responsables de las estancias ofertan salidas diarias para

conocer el patrimonio del entrono (Salinas de Añana, Iruña-Veleia, las cuevas artificiales de El Corro o Pinedo) o la realización de un corto que se cuelga en la red.



**SÉJOURS À ESPEJO**

Forte de l'expérience de ces deux derniers étés, la Confédération des Ikastola a organisé tout au long de l'année scolaire des séjours d'une semaine destinés aux élèves, afin qu'ils associent également la langue basque aux loisirs. Parmi les activités proposées, la découverte du patrimoine historique (Salines

de Gesaltza, Iruña-Veleia, grottes artificielles de El Corro et Pinedo) ou encore la réalisation puis la mise sur le net d'un court métrage.



# 25 URTE BERTSOLARITZA LANTZEN

## Ordutegi barruan egitasmoa lantzen

Jon Lopategik zabaldu zuen bidea, jarri zuen proiektua martxan eta lortu zituen lehen emaitzak. Gaur egun irakasle talde bat ari da Bizkaiko ikastoletan ordutegi barruan bertsolaritza lantzen. Juanjo Respaldiza da talde horren arduraduna. *“Irakasle talde honetan denak dira bertsolariak —esan zigun Juanjo Respaldizak—. Hor daude Itsaso Paya, Peru Madalena, Igor Meñika, Manex Sagarna, Arrate Illaro, Peru Vidal eta ibili da, esate baterako, Amaia Uribe, orain ‘Hitzetik hortzera’ aurkezten hasi dena”.*

**I**kastola guztietara iristen dira eta ikastetxe publiko batzuetara ere bai. Gela barruko lana egiten dute, baina tarteka gelatik kanpo bertso eskolarekin bat ere ematen dute. Itsaso Paya, esate baterako, orduz kanpoko taldeekin ari da lanean aurten Algortako San Nikolasen. *“Badaude ikastetxe batzuk bertsolaritza aukerako gai moduan ematen dutenak, baina ikastola eta ikastetxe gehienetan maila osoei ematen zaizkie bertsolaritzari buruzko hastapeneko urrats horiek. Leku batzuetan urte biko saioak egiten dituzte”,* jarraitu zuen Juanjok.

Respaldizaren ustez, gaur egun ezin da bertsolaritzarik irudikatu hezkuntzan egiten den lanik gabe. *“Irakaskuntzatik atera dira lurraldeko bertsolaririk onenak eta etorkizunean ere hala aterako direla pentsa daiteke. Guk oinarrizko lana egiten dugu, eta gurekin lanean ari diren bertsolari horietako batzuk bertso eskolak ematen ari dira gero beren kontura. Egin den lanari esker, bertsolaritzaren mapa erabat aldatu da eta oso emankorrek ez ziruditen eremuetan jaio dira bertsolariak, hiriburuan esate baterako edo Algortan”,* esan zuen. •

**“Badaude ikastetxe batzuk bertsolaritza aukerako gai moduan ematen dutenak, baina ikastola eta ikastetxe gehienetan maila osoei ematen zaizkie bertsolaritzari buruzko hastapeneko urrats horiek.”**

## BERTSOLARIS QUE VISITAN EL AULA

Jóvenes bertsolaris, como Itsaso Paya, Peru Madalena, Igor Meñika, Manex Sagarna, Arrate Illaro, Peru Vidal o Amaia Uribe, que ahora presenta el programa de ETB1 “Hitzetik hortzera”, pasan semanalmente por las aulas de las ikastolas de Bizkaia para impartir unas clases de iniciación, de forma que todos los alumnos salgan de la ikastola conociendo los rudimentos del género. Juanjo Respaldiza coordina el grupo.

## BERTSOLARISME À L'ÉCOLE

De jeunes bertsolari comme Itsaso Paya, Peru Madalena, Igor Meñika, Manex Sagarna, Arrate Illaro, Peru Vidal ou encore Amaia Uribe, nouvelle présentatrice de l'émission “Hitzetik Hortzera” sur ETB, passent chaque semaine de classe en classe afin d'initier les élèves aux rudiments du bertsolarisme. Cette activité est coordonnée par Juanjo Respaldiza.

## Igor Meñika

**“Ikasleekin lan egiten gustatzen zaidala deskubritu dut”**

*“Orain 12 urte hasi nintzen bertsolaritza ematen. Aurten klase gutxiago ematen ari naiz, irakasle ikasketak bukatu nahi ditudalako. Sei ikastetxetan ari naiz lanean: Zeanurin, Areatzan, Lemoan, Arrigorriagako institutuaren zein eskolan eta Derion. Astean ordu bate ematen diet. Hasieran, gaztetxoak ginelako-edo, inguruko eskolak hartu genituen eta niri Arratikoak egokitu zitzaizkidan. Gero, autoa neukanez, Sopelara, Gernikara eta beste hainbat lekutara mugitu izan naiz. Herri euskaldunetan, Arratian esate baterako, badakite bertsolaritza zer den eta oso gustura etortzen dira. Arrigorriagako institutuaren hautuzkoa denez, jende interesatua bakarrik etortzen da, baina eskolan badaude euskararekin ere arazo larriak dituztenak, etorkin asko baitago. Azken zortzi urtetan tabernan lan eginez ibili naiz klaseak ematen. Aurten tabernako lana utzi egin dut irakasle ikasketak bukatzeko. Hamabi urteko lanak erakutsi dit gazteekin lan egitea gustatu egiten zaidala”.*



## Amaia Uribe

**“Harritu egin nau zer zaletasuna duten gazteek”**

*“Hamazortzi urterekin hasi nintzen, orain lauzpabost urte. Ikasleek 14 urte zituzten eta gogoan dut ez genuela adinean horrelako tarterik. Horrek alde txarrak baditu, baina baita onak ere; konfiantza giroa sortzen du eta konfiantza ona da bertsolarako. Gernikan eta Bilbon ibili naiz lanean eta hiru edo lau eguneko ikastaroak eman ditut Plentzian eta Sopelan. Ikastoletan eta institutuetan eman ditut klaseak. Euskal giroko gelak izan dira eta abantaila handia da hori, azken batean bertsolaritza lantzeko euskara menderatu behar baita. Inoiz B eredu ikasleekin ibili naiz eta oso zaila egin zitzaidan, baina batzuek lortu zuten gaian murgiltzea. Batzarrak egiten ditugu irakasle on artean, ildo nagusi batzuk markatzeko, material bat ere badugu esku artean, baina poliki-poliki bakoitzak bere metodoa bilatu behar du esperientziaren poderioz. Ez daukagu esku-libururik. Ni harritu egin naiz zer-nolako zaletasuna duen jende gazteak. Nik alde egin behar nuela esan nienean askok negar egin zuten. Bertsolaritzarekin jolas egitera iritsi ziren eta hori izan da nire helburua”.*



## Arrate Illaro

**“Zaleak sortzen ahalegintzen gara”**

*“Iaz hasi nintzen Sopelako Ander Deunan eta aurten Leioako Betikon ere banabil, ni ikasle bezala pasatu naizen bi ikastoletan alegia. Euskarako orduan ematen da bertsolaritza. Astean lau ordu uste ditut dituztela Euskararen eta horietako bat erabiltzen da bertsolaritza emateko. Badaude, noski, batzuk bertsozaleak direnak. Joan den astean sortu genuen Algortako Bertso Eskolan LH5-6 eta DBH1eko talde berria, eta nirekin dabilzan ikasle batzuk hasi dira horra joaten. Ostegun arratsaldetan biltzen dira. Baina gela batean denetik dago, badaude bertsolaritzaz ezer ez dakitenak ere. Bertsolaritza zerbait atsegina dela erakusten saiatzen gara, zaleak egiten. Jokoak eta bideoak erabiltzen ditut asko. Astean zazpi ordu ematen ditut eta gustatzen zait lan hau. Klasetik kanpo ere oso ondo konpontzen naiz ikasleekin”.*

*dipuzkoa:*



# Joxin Azkue

## “MEMORIA ESPAZIALA LANTZEA DA PRODUKTU HONEN HELBURUA”

“IRRISTALARI, MUNDUAN IBILTARI”  
10 urtetik 16ra bitarteko ikaleentzako CD-ROMa

Ikastolen Elkarteko produktuek euskal curriculumaren markoa eta geure proiektu nagusiak dute erreferentzia. Ez dira gauza solteak. Gainerako materialarekin lotura zuzena dute. “IRRISTALARI, MUNDUAN IBILTARI” CD-ROMean munduko mapak lantzen dira, baina Txanela eta Ostadar proiektuen barruan kokatu behar dira.

**Z**ein da “Irristalari” CD-ROMaren helburua? Memoria pixka bat baztertuta eduki dugu, gutxietsita, azken bolada honetan, baina memoria lantzea ere beharrezkoa da irakaskuntzan, eta CD-ROM honek memoria espaziala

lantzen du. Gure ikasleek entzuten badute tsunami bat izan dela Indonesian, herrialde hori non dagoen jakin behar dute, gutxi gorabehera bederen. Beste era batera esanda, munduko mapak lantzen dira produktu honen bidez.

Eta ez bakarrik ikasleentzat: edonorentzat izan daiteke interesgarria.

**Zer proposamen egiten duzue munduko mapak lantzeko orduan?** Matematikatan batuketarekin hasi eta



logaritmoekin bukatzen den bezala, hemen ere Euskal Herriko maparekin hasten gara eta, esate baterako, Tuvalu errepublikako hiriburua zein den galdetuz bukatzen dugu. Ibilbide luzea proposatzen dugula esan nahi dut. Ikuspegi nazional batetik abiatzen gara. Euskal Herria bere markoan kokatzen dugu eta Espainia, Frantzia eta Europa, Batasuna bereziki, lantzen ditugu, eta mundua azkenik. Hau guztia flashez egin dugu eta dagoen bezala eskegi daiteke sarean. Dagoeneko proba modura Oiartzungo ikastolako zerbitzarian zintzilikatu dugu eta oso ondo funtzionatzen du. Horrela, CDak sahiesten dira eta neska-mutil multzo batek, gela oso batek adibidez, programarekin

lanean jardun lezake, batera eta norberak bere bidetik.

### Zer formatutako mapak erabili dituzue?

Mapa bektorialak erabili ditugu, zoom handi bat eginagatik ere oso ondo ikusten direnak. Baina formatu bektorialean egindako Euskal Herriko maparik ez zegoen eta Kataluniako enpresa batera jo behar izan genuen. Harekin izan dugun lankidetzari esker, lortu genuen Espainiako eta Frantziako mapak ez ezik, Euskal Herriko mapa berezitu bat egitea. Ondorioz, Euskal Herriari buruzko mapa bektorial bakarra CD-ROM honetan dago. Munduko mapak egiteko orduan Peters fundazioaren proiektioak

“Euskal Herriari buruzko mapa bektorial bakarra CD-ROM honetan dago. Munduko mapak egiteko orduan Peters fundazioaren proiektioak erabili ditugu, kontinenteak luzatuak erakusten dituzten horiek, errealoak eta solidarioak direlako.”

erabili ditugu, kontinenteak luzatuak erakusten dituzten horiek, errealoak eta solidarioak direlako. Mundua esfera bat da eta plano batean proiektatzeko orduan distortsio gutxien eskaintzen duen bidea da. Izendegiaren normalizazioa ere zaindu nahi izan dugu. Horretarako Euskaltzaindiaren eta Hezkuntza Sailaren

datutegietan oinarritu gara.

### Nola erabiltzen da CD-ROM hau?

Hemen ehunka eta ehunka izen daude. Sagua izen horietako baten gainean jarriz gero, izen horri buruzko datuak agertzen dira. Nafarroaren gainean jartzen baduzu, esaterako, lurralde horren hedadura, biztanle kopurua, zer

errenta duen eta beste hainbat datu agertuko dira. Gauza bera gertatzen da Angolaren gainean jartzen baduzu. Datu horiek bildu ahal izateko, munduko erakunde askoren datu biltegiatara jo behar izan dugu. Eustat edo World Gazetteer izan dira erabili ditugun erakunde horietako batzuk. Mapak fisikoak eta politikoak daude. Bilaketan lagungarri pertsonaia bat sartu dugu, hala nola, Barraskiloa, eta iruzkinak eta galderak egiten ditu. Produktua modulatuta dagoenez, adinari eta behar bakoitzari egokitzeko aukera eskaintzen du. Honek garrantzi handia du guretzat. Dibertsifikazioaren ikuspegia erabat bereganatua duela esan nahi dut, alegia. •



## “IKASTOLAK OSASUNA EMAN DIT NIRI”

Historia ikasketak egin zituen Donostiako Deustuko Unibertsitatean eta 31 urte darama ikastolan lanean. *“Nik ikastola bateko ‘ofizio’ guztiak pasatu ditut hainbeste urtean: zuzendari izatetik hasi eta ordezkari sindikala izateraino. Egia da ordu asko eman dizkiodala ikastolari, baina ikastolak ere asko itzuli dit. Ikastolen proiektuan sinesten dut eta urteak pasa ahala, ilusioa ez zait eten”*, hasi zitzaigun Joxin Azkuek.

Oiartzungo ikastolan egiten du aste erdiz lan. IKT dinamizatzailea da eta Informatika klaseak ematen jarraitzen du. Eta beste aste erdia Ikastolen Konfederazioaren IKT taldean dabil. *“Ikastolen Elkarteak IKT taldea orain hogeitun urte inguru sortu genuen, Josune Gereka hona etorri zenean. Hasieratik hasi ginen produkzioekin. Lehen guk egiten genuen dena, autodidaktak ginen. Orain berriz, talde lanean egiten dugu dena eta hori da gure arrakastaren zutabeetako bat. Informatikaren mundua oso azkar aldatzen denez, espezializazioa ezinbestekoa da. Ikastolen Elkarteak bildu duen taldean dauden gazteek izugarri dakite. Edukitzailea zaintzen dute bereziki. Edukiaz gutxiago jakingo dute, baina horretarako gaude gu”*, esan zuen Joxin Azkuek.

### MUCHO MÁS QUE UN MAPAMUNDI

La Confederación de Ikastolas acaba de publicar “Irristalari, munduan ibiltari”, un CD-ROM que ofrece la posibilidad de trabajar los mapas físicos y políticos de todo el mundo de una forma gradual y amena. Cuenta para ello con el concurso de un personaje, Barraskiloa, que no cesa de hacer comentarios y

preguntas. Para el diseño de este CD-ROM, que utiliza mapas vectoriales, el equipo redactor ha tenido que realizar un exhaustivo trabajo de actualización de datos.

### BIEN PLUS QU'UNE MAPPEMONDE

Le CD-ROM “Irristalari, munduan ibiltari” que vient d’éditer la Confédération des Ikastola est bien plus qu’une mappemonde. Il présente les cartes physiques et politiques du monde entier et offre la possibilité de travailler de façon progressive et ludique. L’élève pourra également bénéficier de l’aide d’un

personnage, Barraskiloa, pour ses recherches. L’équipe qui a conçu ce CD-ROM utilisant des cartes vectorielles a dû réaliser un gros travail de documentation et de mise à jour des données.

JOXIN AZKUE. HAURTZARO IKASTOLAKO IKT DINAMIZATZAILEA ETA IRAKASLE. IKASTOLEN ELKARTEKO IKT TALDEAN ERE BADAIBIL, TALDEA SORTU ZENEZ GEROTIK.

**gipuzkoan.com**  
Gipuzkoa hobeto ezagutzeko blogalari sarea

Sartu eta parte hartu  
bainuetxe batean  
5 egun igarotzeko zozketan!  
[www.gipuzkoan.com](http://www.gipuzkoan.com)

*iparralde:*



# BASABÜRÜKO IKASTOLAK ERAIKIN BERRIA ALOZEN



## Hogeita bat ume ari dira Ama Eskolan zubereraz ikasten

Atharratetik Alozera ez da kilometro erdi bat. Uhaitza ibaia zeharkatu behar da, besterik ez. Basabürüko bihotzean dagoen udalerrri honek hiru herrixka biltzen ditu: Aloze, Ziboze eta Omizegaine. Guztira 320 bizilagun ditu. Eta datorren urtean horietatik 100 baino gehiago mobilizatuko ditu pastoralak egiteko. Aurten ikastola berria inauguratu dute 21 ikaslerekin. Ikasle kopuru urria dirudi, baina Basabürüko ikastolak oraindainenokan izan dituenak kontuan hartuta, bikoiztu egin ditu aurten.

**I**railaren 15ean sartu ziren Alozeko ikastola berria, eta astebete geroago egin zuten ekitaldi ofiziala. Eraikina Zuberoako Herri Elkargoak (Communauté de Communes) eraiki du. Sartu eta ezkerretara haurtzaindegi elebiduna

jarri dute, eta eskuinetara ikastola. *“Aspaldiko ikastola da hau, 30 urte baditu, baina betidanik izan ditu lokal arazo larriak. Gaur hemen guraso diren zenbait, ikastolako ikasle izanak dira. Sohütako ikastola ere aspaldikoa da,*

*ni neu han ibilia bainaiz eta badituz 32 urte. Hautetsiei presio eginez lortu dugu eraikin berria”*, hasi zitzaigun kontatzen Karine Chimix irakaslea. Muskildiko nekazari familia batekoa da (anaia batek Agorria gazta kooperatiban

egiten du lan) eta Sohütako ikastolatik Kanboko kolegiara pasatu zen, ondoren irakasle ikasketak egiteko.

Herri Elkargoarena da, beraz, Basabürüko ikastolaren eraikina eta urtean alokairua ordaintzen

dute. *“Herri Elkargoak haurtzaindegi elebidun bat ireki du Maulen eta beste bat hemen”*, esan zuen Karinek.

Zuberoak hiru eskualde ditu: Basabürüa (Iruritik hasi eta Santa Grazira arte), Arbailak (Nafarroa Behereko



mugan) eta Pettarra (Maule ingurua).

**“Gure 21 ikasle hauek Basabürüko herri ttipietatik heldu dira. Badira hemen Santa Grazitik datozenak ere. Larrañetik ere badatoz, eta Biarnoko mugan dagoen Montoritik ere bai.**

**Gehienak autoz etortzen dira gurasoekin. Atarratzen edo Maulen lan egiten duten gurasoak dira eta txandaka ibiltzen dira.**

**Haurrak zaintzeko zerbitzu bat jarri dugu goizeko 8etatik 9ak arte, eta arratsaldeko 5etatik 6ak arte. Eguerditan kantina dute hemen berean eta ttipienek bazkalondoan lo kuluxka egiteko lekua ere badugu”, jarraitu zuen Karinek.**

### ZUBERERAZ AMA ESKOLAN

Karinek nahiz laguntzaile gisa egunean bi orduz lan egiten duen Audrey-k zubereraz egiten dute ikasleekin. **“Ama Eskolan zubereraz egitea oso garrantzitsua da, gurasoengandik edo aitaxi-amatxirengandik jaso duten euskalkia transmititu ahal izateko. Sohütan, esate baterako, 10-11 urterekin**

**sartzen dute batua eta kolegioan batua bakarrik erabiltzen dute. Zuberoko kantuak eta dantzak erakusten ditugu, baina Euskal Herri osokoak ere bai, ez gelditzeko gure Zuberoko txikiaren zilborrari bakarrik begira. Zuberorearen ikuspegi folkloriko hori gainditzeko saiatzen naiz, alegia. Zuberoko ez da ezer Euskal Herria gabe”, esan zuen.**

**Material didaktikoarekin, berriz, ikasleekin eta eskoletan erabiltzen dena egokitzen saiatzen dira. “Material falta, beraz, arazo bat da. Zuberoko hitanoa oso indartsu dago eta guk ere toka hitz egiten dugu mutikoekin. Mutikoek zuka erantzuten digute, noski. Neskekin ez dugu noka egiten, ez baita erabiltzen. Ikas-ek, Iparraldeko pedagogi zerbitzuak, badu egun erdiz lan egiten duen langile bat testuak egokitzeko”, esan zuen.**

**Zuberoko kultura tradizionallean, kantuan, dantzan eta ikusgarrietan, oso inplikaturik dabilten gurasoak dituzte.**

**Gurasoen artean dezente dira nekazari eta**

**“Gure 21 ikasle hauek Basabürüko herri ttipietatik heldu dira. Badira hemen Santa Grazitik datozenak ere. Larrañetik ere badatoz, eta Biarnoko mugan dagoen Montoritik ere bai.”**



**artzainak, eta badira guraso bat baserrian eta bestea bulegoan edo zerbitzuatan lan egiten dutenak. “Hemen baserrian lan egiten dutenek ez, baina beste guztiek autoan bide luzeak egiten dituzte lanerako bidean. Pauzaraino edo Baionaraino ere joaten dira batzuk”, adierazi zuen**

**ikastolako irakasleak. Sohütako Eperra ikastolan 90 ikasle dira 2-11 urte bitartekoak eta ikastola horretako Ama Eskolakoekin irtenaldiak eta egun-pasak egiten dituzte. “Atzo, adibidez, gaztainak biltzera joan ginen elkarrekin”, esan zigun Karinek. •**

**“Material falta, beraz, arazo bat da. Zuberoko hitanoa oso indartsu dago eta guk ere toka hitz egiten dugu mutikoekin. Mutikoek zuka erantzuten digute, noski. Neskekin ez dugu noka egiten, ez baita erabiltzen.”**



### LA IKASTOLA DE BASABÜRÜA ESTRENA EDIFICIO

Zuberoko ikastola duela 100 urte zuzenean Mauleko ikastola baten inguruan zegoen. “Cuando yo estudiaba en la ikastola de Maule éramos un ghetto. Ahora es casi una moda llevar a los hijos a la ikastola. La situación se va normalizando”, nos dijo Karine Chimix, profesora de la segunda ikastola de Zuberoko, la de Basabürüa, en Aloze.

La Soule compte 100 élèves répartis sur deux ikastola. Les effectifs ont connu une hausse ces dernières années, le nombre d’élèves ayant doublé grâce notamment au nouveau bâtiment financé par la Communauté de Communes de Soule. “Quand j’y étais élève, l’ikastola

### L’IKASTOLA DE BASABÜRÜA INAUGURE SON NOUVEAU BÂTIMENT

de Mauléon était comme un ghetto. Aujourd’hui, mettre son enfant à l’ikastola est presque devenu à la mode. La situation tend à se normaliser” nous a confié Karine Chimix, enseignante à l’ikastola d’Alos, deuxième ikastola souletine.

de Mauléon était comme un ghetto. Aujourd’hui, mettre son enfant à l’ikastola est presque devenu à la mode. La situation tend à se normaliser” nous a confié Karine Chimix, enseignante à l’ikastola d’Alos, deuxième ikastola souletine.



# KONTSEILUA HAMAR URTEZ LANEAN

## Ibilbidean hainbat lan egin ditu

Besteak beste, beren bide propioa hartu duten Bai Euskarari Ziurtagiria eta Behatokia. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua 46 bazkidek osatzen dute, hala nola, Ikastolen Konfederazioak, AEK-k, Berriak, Topaguneak, Elkar-ek, Elhuyar Fundazioak, etabek. Nola eta zergatik elkartu ziren duela 10 urte esparru desberdinetan lan egiten duten erakunde hauek guztiak? Guztiak euskararen alde lan egitea dute helburu, eta bakoitzak bere kabuz jardutea baino, guztiak euskararen normalizazioa bultzatzeko elkartzea erabaki zuten. Horrela sortu zuten euskalgintzaren bilgune bihurtu den Kontseilua.

**'BAI EUSKARARI'** lelopean Euskal Herriko bost kirol-estadiotan euskaltzaleak bilduz eman zion hasiera Kontseiluak bere ibilbideari. Bilbon San Mamesen, Iruñean Sadarren, Donostian Anoetan, Miarritzen Agileran eta Gasteizen Mendizorrotzan,

guztira 120.000 lagun baino gehiago bildu ziren.

10 urte emankor izan dira euskalgintzarentzat. Euskal Herriko lurralde guztietako 121 herritara hedatu dugu euskararen aldeko mezua "Bai Euskarari Akordioa Herrietan" proiektuaren bidez. Gaur

egun 'Euskaraz Bai Dinamika Herrietan' izena du proiektuak. Horri esker, Tafallan, Amurrion, Uztaritzen, Basaurin eta Donostian egiten dugu lan, besteak beste.

Era berean, hainbat esparrutan lanean hasi da Kontseilua. Lan-mundua

euskalduntzen laguntzeko tresna abian jarri du: Bai Euskarari Ziurtagiria. Enpresa eta bestelako entitateek euskararen alde hartzen dituzten neurriak kreditatzeko sistema eta tresna sortu dugu. Proiektu berritzaile honek jada Euskal Herri osoko 1.600 entitatetan

eragitea lortu du. Bestetik, hizkuntza-eskubideak babesteko Hizkuntza-Eskubideen Behatokia sortu zuen 2001 urtean Kontseiluak. Herritarren kexa eta zoriontzeeekin lan egiten du zuzenean, abian jarritako 'Euskararen telefonoa'ren bidez. •





## EUSKARAZ BAI = URRATS BAT AURRERA

‘Bai euskarari’ leloaren eboluzioa da ‘Euskaraz bai’ mezua

‘Euskaraz bai’ jarrera euskal herritar oroengana zabaldu behar dugu, bakoitzaren konpromisotik abiatuta, guztiok euskara ere ezagutuz, urrats handi bat egingo dugulako bizikidetzan; horregatik diogu ‘Euskaraz bai’.

### AURRERA EGIN

‘Bai euskarari’ mezua bidez Kontseiluak euskal gizartearen euskararen aldeko jarrera erakutsi du. Orain, urrats bat aurrera egiteko ordua heldu da.

### KONPROMISOA

Hasierako ‘Bai euskarari’ mezua garapenean, Kontseiluaren mezua konpromisoarekin indartu da. Euskararekin konprometitzeko deia da ‘Euskaraz bai’, norbanakook euskaraz bizitzeko hautua egin dezagun.

### GARAIA DA

‘Euskaraz bai’ esateko garaia da, bi hizkuntza dituen komunitate batean norbanako guztien eskubideak ziurtatu eta errespetatzeko eta inor ez baztertzeko, ezinbestekoa da komunitate horretako biztanle guztiek bi hizkuntzak ezagutzea, eta horrela bakarrik saihestu dezakegu hizkuntzen arteko borroka.



## ABENDUAREN 13AN BEC-en

Kontseiluak eta Ikastolen Konfederazioak: “Bizkaiarenan egingo den ekitaldira gonbidatzen zaituztegu”

Hitzordua: abenduaren 13an, larunbata, Bilbao Exhibition Centre-en arratsaldeko 18:00etan (haurtzaindegi zerbitzua izango da). *“Kontseiluaren 10. urteurrenaren ekitaldi nagusira gonbidatuta zaudete, baina sarrera gorde behar duzue bukatu baino lehen”.*

Kontseiluko idazkari nagusia den Xabier Mendigurenek eta Ikastolen Konfederazioaren lehendakaria den Koldo Tellituk gonbidapena luzatu nahi dizuete Kontseiluaren 10. urteurrena ospatzeko ekitaldi nagusira. *“Pauso bat harago heldu nahi dugu denok elkarrekin ‘euskaraz bai’ esanez”.*

‘Pauso bat harago’ heltzeko Kontseilua osatzen duten 46 erakundeek ikusizuna prestatu dute. *“Euskaingintzan une esanguratsua izango da abenduaren 13an, ‘Euskaraz bai’ garaia hasiera izango delako”.* Ordezkariek ez dute ekitaldiaren edukirik aurreratu nahi izan, ‘sorpresa’ izango baita.

Sarrera doan izango da baina sartzeko lekua gorde behar da aurretik, bukatu baino lehen. Horretarako, Kontseiluak, [www.nierebanoa.com](http://www.nierebanoa.com) webgunea sortu du, bertan izena emanez gero, gonbidapena etxean jasoko duzue. Era berean, telefono bat jarri du 902820240.

Bestetik, Abenduaren 13ko ekitaldirako komunikazio kanpaina martxan jarri du Kontseiluak ‘Pauso bat harago’ lelopean. Euskararen normalizazioaren aurrera egiteko beharra nabarmendu nahi izan dute kanpainaren bidez: *“Euskaingintza osatzen dugunok euskararen normalizazioaren bidean aurrerapausoak ematea lortu dugu, baina lortutakoa ez da nahikoa, euskarak ez baitu etorkizuna ziurtaturik”*, azaldu dute ordezkariek. Halaber, Euskara normalizatzea posible dela azpimarratu dute, *“euskararen ezagutza eta erabilera areagotu nahi ditugu”*.



energia =  $m \times c^2$

energia  
garbia  
erosoa  
segurua

---

naturgas  
energia

Naturgas energia etorkizuneko energia da, garbi jokatzen duelako gurekin eta gure ingurumenarekin.

**naturgas energia**

 **EROSKI**

*Zure aukera!*

**GARBERA - URBIL  
ARRASATE**

Tu compra tiene  
**REGALO**



Compra las ofertas indicadas  
y consigue productos de regalo



**ekar**

elkar ezagutzen dugulako

Testuliburu eta ikasmaterialetan adituak

  
[www.elkar.com](http://www.elkar.com)

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA



# ESKOLARTEKO FINALISTAK, FIRIN-FARAN

## Huescan izan ziren handienak, Santa Klara uhartean txikiak

Ikastolen Elkarteak antolatzen duen Eskolarteko Bertsolari Txapelketako handien mailako finalistek Huescan egin zuten bost eguneko txangoa eta txikien mailakoek egunpasa bota zuten estropada egunean Donostian. *“Aurreko urte batzuetan Parisen, Lisboan eta Frantziako iparraldean ibili ginen eta, turismo aldetik oso aberatsa izanik ere, elkarrekin egoteko aukera urriak izan genituela ohartu ginen. Horiek horrela, azken bi urteotan Asturiasen, iaz eta aurten Huescan, talde giroa askoz ere gehiago landu dugu”*, esan zigun Julen Zulaikak, Mikel Mendizabalekin batean egonaldiaren ardura eraman zuenak.

**I**railaren lehen astean egin zuten Huescako egonaldi hori. *“Boltaña herrixkan nekazal etxe bat hartu genuen. Athleticoko neskak eta Osasunako jokalariek herri horretan egoten zirela jakiteak ere ilusioa egin zigun. Egun batean rafting egin genuen, egun osoko kainoi jaitziera beste batean, mendi buelta bat ere egin genuen eta ez genuen aspertzeko betarik izan. Bost egun izan ziren, eta afalondoetan egiten genituen tertuliak eta lagun arteko bertso saioak. Bertsoaren inguruan ez dugu ezer programatzen, baina denok bertsoetan ibiltzen garenez, etengabe ateratzen da bertso kontua eta afalondotan kantatu ere egiten genuen. Dena den, oso egun lasaia izan ziren. Garbiketa eta sukaldeko*

*lanak denon artean egiten genituen eta oso giro polita sortu zen. Badakit Lesakako Gazte Egunerako eta Hernaniko festaren baterako planak egin zituztela. Nik uste dut egonaldi horietan harreman estuak sortzen direla”,* jarraitu zuen Julenek.

Hamaika finalista joan ziren guztira: Ekaitz Samaniego eta Ander Solozabal arabarrak, Ane Labaka eta Asier Azpiroz gipuzkoarrak, Maiana Irigoyen eta Ximun Cazaubon lapurtarrak, Bixente Luku baxenafartarra eta Saioa Alkiza nafarra. Mattin Lukuren ordez Txomin Elozegi joan zen, Josu Sanjurjo nafarraren ordez loar Tainta eta, Bizkaitik Miren Amurizak eta Jone Uriak huts egiten zutenaz, Oier Iurrumendi

hernaniarrak ordezkatu zuen bietako bat.

### TXIKIAK SANTA KLARAN

Estropada Egunean, berriz, Donostiako portuan egin zuten hitzordua Eskolarteko txikien mailakoek. Nafarrak (Amaia Elizagoien eta Haizea Beruete) Erika Lagomarekin etorri ziren, Ipar Euskal Herrikoak (Maddiane Txoperena, Onea Jauregi, Johaiñe Sarrailet eta Ibai Kapot) Arantxa Oxandabaratzekin, bizkaitarrak (Nerea Ibarzabal eta Malen Amenabar) Juanjo Respaldizarekin, gipuzkoarrak (Maialen Akizu eta Amaia Urbieta) beren gurasoekin eta arabarrek (Ainhua Comasek eta Bingen Sainz)ek huts egin zuten.

*“Itsasontzian joan ginen*

*Santa Klarara, eta itsas aldera dagoen miradore batean gure txokoa hartu genuen. Hamarretakoa egin eta estropadak ikusteko prestatu ginen. Aurten ez genuen eguraldiarekin suerterik izan eta zaparrada pare jasan behar izan genituen. Donostiako taberna batetik eramaten dugu bazkaria eta bazkal aurretik portura itzuli ez itzuli zalantzan genbiltzanean eguraldiak onera egin zuen eta oso arratsalde polita igaro genuen. Bainu bat hartu eta seiak aldera portura itzuli ginen.*



*Egunpasaren helburua elkar ezagutu eta harremanetan jartzea da”,* kontatu zigun **Mikel Mendizabalek.**

# DURANGO

## URTEKO LANAREN ERAKUSLEIHO

MENDIETAN ELURRA AZALDU ORDUKO IRITSI DA AURTEN ERE DURANGOKO AZOKA, EUSKAL KULTURAK DUEN EKINTZARIK ERRALDOIENA. INPRIMATEGIETAKO MAKINAK KEA DARIELA IBILI DIRA AZKEN HILABETEETAN ETA IKASTOLEN KONFEDERAZIOAK ERE URTEKO BERRITASUN NABARMENENAK ERAMANGO DITU BERE SALMAHAJETARA. GAINETIK BADA ERE, NAGUSIENAK AIPATUKO DITUGU ONDORENGO ORRIALDEETAN. AURRETIK, ORDEA, XABIER ETXEBERRIA ETA IRATXE GEREDIAGARI, IKASTOLEN ELKARTEKO BILTEGI ETA DENDETAKO ARDURADUNEI, GALDERA BANA EGINGO DIEGU.



### ■ HAUR HEZKUNTZA

#### OLENTZERO PUZZLEAK (3+) PUZZLEAK

**DESKRIBAPENA:** 16 zatiko egurrezko bi puzzle. Bi irudietako batean New Yorken ageri zaigu Olentzero, eta, bestean, neska-mutilez inguratuta ikusten dugu, parke batean. Gida didaktikoa.

**NOLA ERABILI:** Jolas honetako eginkizuna da puzzlea osatzen duten atalak modu egokian lotzea, irudia osatzeko. Gainera, bakarka ez ezik, taldean elkarrekintzan jarduteko aukera ere ematen du puzzle honek, eta komunikaziorako kompetentzia areagotzen laguntzen du.

Jokalari bat baino gehiago badago: umeen artean puzzlearen zatia banatuko dira, launa zati, esaterako. Ausaz aukeratutako jokalaria hasiko du jokoa. Partaideek txandaka jarraituko dute. Dagokion jokalaria puzzlearen hurrengo zatia badauka ipini egingo du, eta, bestela, hurrengo jokalaria jarraituko du.



## XABIER ETXEBERRIA

“Biltegi denda dugu, edonorentzat zabalik”

Donostiako Belartza auzoan (*Decathlondik gertu, Trofeos Txapeldunen aurrez aurre*) dagoen Ikastolen dendako arduraduna da. Denda eta biltegi horretan Ikastolen Elkarteko katalogo osoa aurkituko du bisitariak. “Produktu bakar bat erostera ere etor daiteke edonor. Biltegi denda dugu zabalik”, esan zuen Xabier Etxeberriak, bertako arduradunak.

Denda eta biltegi horretara ikastolako gurasoez gainera, edonor joan daiteke. **Eguberriak bitartean**, goizetan **10etatik 13etara**, eta arratsaldetan **16:30etik 20etara** zabalik izango da.

## IRATXE GEREDIAGA

“Produktuak ikusteko eta ikasteko aukera dago”



Zornotzako Ikastolen denda, 2003tik martxan dugu Ixer kaleko 8. zenbakian. Bertara urreratzen danak, produktuak zelan erabiltzen diran ikusteko eta ikasteko aukera eukiko dau. Horretarako beren-beregi, Ikastolen Elkarteko produktu guztiak zabalik doguz. Dendaz gain, 350 metro koadro dituen biltegi honetan gure produktuak gordetzen doguz eta distribuzio sistema osoa bertatik bideratzen da salmentari aurre eginez.

Zornotzako dendako egutegia, honakoa da: astelehenetik barikura, **abenduaren 19rarte** zabalik eukiko dogu, goizeko **10:00etatik 13:00etara** eta arratsalde, **15:00etatik 18:30etara**.



### ■ HAUR HEZKUNTZA

**HORMA-IRUDIAK**  
EUSKAL ALFABETOA, EUSKAL HERRIKO MAPA, OLENTZERO PARKEAN

**DESKRIBAPENA:** 50x70cm-ko horma-irudiak. Glasfonatu mateak.

**NOLA ERABILI:** Olentzeroren horma-irudiak, gure kultura ezagutzera emateko, eta kulturartekotasunarekin lotutako gaiak lantzeko balio diezaguke. *Euskal alfabetoa* izeneko hizkuntza konpetentziak - ahozkoak nahiz idatzizkoak - garatzeko orduan izan daiteke lagungarri, eta, azkenik, *Euskal Herriko mapa* izenekoak, gure ingurune sozial eta fisikoa hobeto ezagutzen lagunduko digu, hizkuntza konpetentziak lantzeko ere balio duelarik.



**HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA**

**8 MAGNETIKOAK (3+)  
 MAGNETIKOAK**

**DESKRIBAPENA:** Euskarri magnetiko bikoitza (basoa eta logela), 8 puzzle magnetiko eta euskarri magnetikoan itsasteko 114 hitz magnetiko, letra xehez eta larriz.

**NOLA ERABILI:**

- Zortzi puzzle daude lamina magnetikoetan. Atera bertatik egin nahi diren puzzleen zatiak eta puzzleok berregin, euskarri magnetikoaren gainean.
- Puzzlea osatzeaz gain, komunikazio konpetentziak garatzeko ere erabil daiteke jokoak. Horretarako, hondo bat aukeratu, eta bertan pertsonaia baten puzzlea osatuko da. Jarraian, janzkerari eta itxurari dagozkion hiztegi-txartelak hartu, eta bakoitzari dagozkion elementuak aurkituko dira
- Hondo biak hutsik daudela, hiztegi-txartelak hartu, irakurri, eta hondo bakoitzari dagozkionak dagozkien tokian jarriko ditugu.



**HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA**

**ABRITZ PORTAS (+3)  
 LIBURUA**

**DESKRIBAPENA:** Miel Angel Elustondok, Jabier Kalzakortak eta Jon Zabaletak mimo handiz josi duten lana da. Ahozko tradizioan oinarritutako haur-kanten bilduma da, eta hauen edertasun zein balioaz gogoeta batzuk modu laburrean jartzea du helburu, besteak beste. Edozein gurasok seme-alabekin erabiltzeko moduko altxorra aurkituko du barruan.

**NOLA ERABILI:** Familia giroan eta lagunartean lantzeko tresna da. Ohituraz gaurdaino irauin duten haur-kantak etxeko epelean landu eta kantatzeko helburua dutenak. Eta jolaserako gonbita egiten dutenak.

**HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA**

**TXINPARTAILUA (2-7 URTE)  
 JOSTAILU INTERAKTIBOA**

**DESKRIBAPENA:** Jostailu interaktiboa. 40 txartel, alde bietatik; 215 galdera baino gehiago. Euskaraz eta ingelesez. Galdera esparru zabala: erlazioak, koloreak, itzalak, alfabetoa, zenbakiak, kalkuluak, konparaketak, logika... AA erako bi bateria behar ditu. Jostailuak ez dakartza. Gida didaktikoa.

**NOLA ERABILI:** Jostailuaren azpialdean dauden galdera-txartelak hartu eta zein hizkuntzatan jolastu aukeratu behar da, horretarako dagoen botoia erabilita. Aukeratu lamina bat eta jostailuaren oinarrian jarri. Irakurri galdera-laminaren goialdean dagoen galdera edo baten bati irakurrarazi.



**HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA**

**8KBZ. ZORTZI, KATILU BETE ZORRI (3+)  
 DVD**

**DESKRIBAPENA:** Marrazki bizidunetako bideo honetako protagonista zortzikote bat dugu: Txinpart, Naia eta Maia bikiak, Xaxa, Eustaki, Tartalo, Txiki eta Eki. Dantza erraz eta politak erakustera datozkigu. Lau dantza aukeratu dituzte guri erakusteko: *Esku-dantza*, *Zapatain-dantza*, *Xan Petrike* eta *Zazpi Jauziak*. Ausartuko ote gara eurekin batera dantza egiten?

**NOLA ERABILI:** Pelikula legez ikus daiteke bideoa, lau dantzak bata bestearen ondoren ikusita, dantzari guztiek dantzatuta. Pausoz pauso atalean dantzaren pauso nagusiak erakutsiko dira, ohiko abiaduran baino astiroago. Dantza osoa atalean dantza osoa egongo da ikusgai, dantzari bakar batek dantzatuta. Menu honek beste bi aukera ditu barruan: Alboz edo atzez ikustea dantzaria. Ohiko abiaduran edo abiadura motelagoan ikustea dantzaria.





■ LEHEN HEZKUNTZA - DBH

**BIZI BIZI ARRANOA, ZEHATZ MEHATZ HONTZA (+8)**

CD-ROMA

**DESKRIBAPENA:** Testu idatziek eta ahozko testuek komunikazioa eragiten dute, eta horregatik, hizkuntza menderatu nahi bada, funtsezkoa da ikasleak testuak sortzen eta horiek ulertzen trebatzea. CD-Rom honen helburua, irakurtzen ikasi duten ikasleek, testuen ulermena hobetzeko hainbat trebezia garatzea da.

CD-ROM hau LHko bigarren mailako ikasleek landu dezakete, baita DBHko lehen ziklokoek ere. Bi ataletan daude banatuta jarduerak: arranoarenak eta hontzarenak.

**NOLA ERABILI:** Arranoak abiadura bizian egiten du hegan; hontzak, berriz, gertu daudenak ikusteko ikusmen zoila du; eta satorreakin batera, hainbat aukera eskainiko dituzte, ikaslearen bizkortasuna eta pertzepzioa garatzeko.

CD-ROMa eragin-trukatzaile edo interaktiboa bada ere, garrantzitsua da hori arduradun baten begiradapean lantzea: emaitzak elkarrekin ikusi eta ondorengo saioen plana zehaztu. Aukera nagusia, lan saioak antolatzea izango da.



■ LEHEN HEZKUNTZA - DBH

**IRRISTALARI, MUNDUAN IBILTARI (+10)**

CD-ROMA

**DESKRIBAPENA:** Erabiltzailearen memoria espaziala landu nahi duen programa duzu. Flash teknologiaren bidez, Euskal Herria, Espainia, Frantzia, Europa eta munduko mapak, bai fisikoak, bai politikoak, lantzen ditu, Peters proiektzioak erabiliz. Dibertsifikazioari garrantzia eman diogu, eta saioak zailtasunen zein norberaren interesen baitan modulagarriak dira. Windows eta Mac-erako baliagarri da.

**NOLA ERABILI:** Bi atal ditu. **IKUSKATU:** norberak aukera dezake landu nahi duen mapa eta horren zailtasun maila. Bertan miatu daitezke elementu guztien datuak eta bakoitzaren informazio laburtua. **JARDUN:** erabiltzaileak mapa bakoitzean gune egokian lekutu beharko ditu proposatzen zaizkion izen geografiko guztiak, estatua, hiria, mendia edo ibaia izan.



■ LEHEN HEZKUNTZA

**ALTXORRAK & LAPURRAK (+8)**

MAHAI JOKOA

**DESKRIBAPENA:** Mahai-joko honetan, Euskal Herritik abiatuta, Txanela proiektuan landutako munduan izan diren lau zibilizaziotara (Egipto, Txina, Arabia eta Amerikara\*) bidaiatu eta beren kultura modu jostagarrian ezagutzeko aukera izango duzue. Horietako bakoitzetik *altxor* bat lortu beharko duzue. Horretarako, galderei erantzun, igarkizunak asmatu eta beste jolaskideekin trukean eta elkarlanean arituko zarete, zuen *altxor-bilduma* osatzeko.

**NOLA ERABILI:** Baina ibilbidea lapurrez josita dago eta edozein jokalaria izan daiteke lapurra; beraz, adi ibili beharra dago. Ibilbidean, Txanelako pertsonaiak izango dituzue lagun: Meili, Xabier, Maider, *Xarpa* zakurra eta *Morgan* antzara, eta bidaide ezin hobeak izango dituzue, beti laguntzeko prest. Bidaia dibertigarri honetan ez zaizue emozioa ezta ustekabeak faltako, eta ausart eta argi ibili beharko duzue zuen *altxor* lortzeko. Anima zaitzete eta zorte on zuen bidaian! Mahai-joko honetan bakarka aritu zaitzeteke, baina egokiago da elkarlanean aritzea eta binaka edo taldetotan jolastea.



■ HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

**EUSKAL HERRIKO MAPA PUZZLEA (5+)**

PUZZLEA

**DESKRIBAPENA:** 61x38cm-ko puzzlea, 100 zatikoa. Bertan Euskal Herriko mapa azaltzen zaigu, Euskal Herriko hainbat elementurekin batera: hiriburuak eta herriak, mendiak eta ibaiak, kultura-tradizioko pertsonaiak, jarduera ekonomikoari lotutako ezaugarriak, elementu arkitektoniko eta paisaiakoak...

**NOLA ERABILI:** Puzzlearen irudiak beltzune batzuk ditu eta hauek atzamarrez edo zapi batez igurtzita azpian ezkutatuta dauden irudiak agertuko dira. Une batzuetan begi-bistan izan ondoren, berriro desagertuko dira! Kaxaren atzealdean hainbat elementu arkitektoniko eta beren izenak daude, zein zein den asmatzera jolasteko.